## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-4251

159/2003 DEKRETUA, uztailaren 8koa, Justizia Administrazioaren EAEko Aztergunea sortu eta arautu zuen dekretua aldatzeko dena.

Maiatzaren 8ko 81/2001 Dekretuaz Justizia Administrazioaren EAEko Aztergunea sortu zuen, eta 1. artikuluan jartzen duenez, Justizia Administrazioarekin erlazionatuta dauden gaietan Euskal Autonomia Erkidegoko kontsulta eta aholkularitza-organo izateko sortu zen.

Justizia Administrazioaren EAEko Aztergunea, Justizia Administrazioarekin erlazionatuta dauden gaiei buruzko ikerketak, eztabaidak, azterketak eta jarduteko proposamenak egiteko gunea izango da, eta zerbitzu publiko horren eskaintzan diharduten edo jarduketaren bat egiten duten erakunde, profesional eta agenteen topaleku izango da.

Justizia Administrazioaren EAEko Azterguneare osaera arau horretako 3. artikuluan arautzen da.

Topaleku horretan parte hartzen duten instituzio eta antolakundeek ordezkaritza handiagoa izan dezaten, eta horrela, topaleku horren egitekoak eraginkortasunez burutzeko, beharrezkoa da azterguneare egitura eta osaera berriz ere antolatzea: alde batetik, lehendakariordetza bat jarri da, eta bestetik, erakundean beste kide batzuk sartu dira; beste bat, aldiz, kendu egin da, berak hala eskatuta.

Azkenik, Justizia Administrazioaren EAEko Aztergunek kideak ordezkatzeko araubidea sartu da.

Ondorioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko uztailaren 8an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Artikulu bakarra.***– Maiatzaren 8ko 81/2001 Dekretuaren 3. artikulua, Justizia Administrazioaren EAEko Azterguneare osaeari buruzkoa, berriz idatzi da, eta honela geratu da:

«3. artikulua.– 3.1. - Justizia Administrazioaren EAEko Aztergunea ondoko kideez osatuko da:

– Lehendakaritza: Justizia sailburuordea.

– Lehendakariordetza: Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako zuzendaria.

– Giza Baliabideen zuzendaria.

– Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako zuzendaria.

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-4251

DECRETO 159/2003, de 8 de julio, de modificación del Decreto de creación y regulación del Observatorio Vasco de la Administración de Justicia.

El Decreto 81/2001, de 8 de mayo, crea en su artículo 1 el Observatorio Vasco de la Administración de Justicia como órgano consultivo y de asesoramiento de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materias relacionadas con la Administración de Justicia.

En este sentido, dicho organismo se configura como un foro de investigación, debate, análisis y propuesta de actuación en materias relacionadas con la Administración de Justicia, y constituye un lugar de encuentro de aquellas instituciones, profesionales y agentes que actúan o desarrollan alguna actuación en la prestación de dicho servicio público.

La composición del Observatorio Vasco de la Administración de Justicia se regula en el artículo 3 de la citada norma.

Con el fin de lograr una mayor representatividad de las instituciones y organizaciones implicadas en dicho foro en aras a lograr un cumplimiento eficaz de las funciones a desarrollar por el mismo, se hace necesario reorganizar su estructura y composición, así por un lado se procede a la introducción de una vicepresidencia, y por otro a la incorporación de nuevos miembros en el seno de este organismo y la salida del mismo, a petición propia, de uno de sus miembros.

Finalmente, también se introduce el régimen de suplencias de las y los miembros del Observatorio Vasco de la Administración de Justicia.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 8 de julio de 2003,

DISPONGO:

***Artículo único.***– Se da nueva redacción al artículo 3 del Decreto 81/2001, de 8 de mayo, de composición del Observatorio Vasco de la Administración de Justicia, que queda redactado de la siguiente manera:

«Artículo 3. - 3.1. - El Observatorio de la Administración de Justicia se compondrá de las y los miembros siguientes:

– Presidencia, El o la Viceconsejera de Justicia.

– Vicepresidencia, El o la Directora de Relaciones con la Administración de Justicia

– El o la Directora de Recursos Humanos.

– El o la Directora de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia.

– Euskal Estatistika Erakundeko zuzendaria (EUSTAT)

– Herrizaingo Sailaren ordezkari bat.

– Arartekoaren ordezkari bat.

– Emakumearen Euskal Erakundearen (EMAKUNDE) ordezkari bat.

– Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen zuzendaria.

– Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko ordezkari bat Euskal Autonomia Erkidegorako.

– Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salako ordezkari bat, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak izendatuta.

– Fiskal bat, Auzitegi Nagusiko fiskalburuak izendatua.

– Idazkaritza Judizialaren ordezkari bat, idazkari judizialen Lankidetza-Organoak izendatua.

– Dokumentazio Judizialeko Zentroko kide bat, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak izendatua.

– Kriminologiaren Euskal Institutuaren ordezkari bat.

– Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren lehendakaria.

– Prokuradoreen Elkargoaren ordezkari bat, dekanoek, ados jarrita, izendatua.

– Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko dekanoak izendatutako ordezkari bat.

– Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko dekanoak izendatutako ordezkari bat.

– Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren talde psikosozialen koordinatzailea.

– Gizarte eta Informazio-Zientzien Fakultateko ordezkari bat, bertako dekanoak izendatua.

– Ekonomia-Zientzien Fakultateko ordezkari bat, bertako dekanoak izendatua.

– Oñatiko Soziologia Juridikoko Institutuko ordezkari bat.

– Bake-Epaileen ordezkari bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Bake-Epaileen Elkarteak izendatua.

– Ordezkari sindikal bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan diharduten sindikatuek ados jarrita izendatuta edo bestela, Administrazio horretako sindikatu nagusiak izendatuta.

– El o la Directora del Instituto Vasco de Estadística (EUSTAT).

– Una persona Representante del Departamento de Interior.

– Una persona Representante del Ararteko.

– Una persona Representante del Instituto Vasco de la Mujer-EMAKUNDE.

– El o la Directora del Instituto Vasco de Medicina Legal.

– Un o una Vocal del CGPJ para la Comunidad Autónoma del País Vasco.

– Una persona Representante de la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia designada por el Consejo General del Poder Judicial.

– Una o un Fiscal, designado por la o el Fiscal Jefe del Tribunal Superior de Justicia.

– Una persona Representante del Secretariado Judicial, designada por el órgano de colaboración con las y los Secretarios Judiciales.

– Un o una Miembro del Centro de Documentación Judicial designada por el Consejo General del Poder Judicial.

– Una persona Representante del Instituto Vasco de Criminología.

– El o la Presidenta del Consejo Vasco de la Abogacía.

– Una persona Representante de los Colegios de Procuradores y Procuradoras, designada por las o los Decanos de común acuerdo.

– Una persona Representante designada por la o el Decano de la Facultad de Derecho de la Universidad del País Vasco.

– Una persona Representante designada por la o el Decano de la Facultad de Derecho de la Universidad de Deusto.

– La persona responsable de la coordinación de los equipos psicosociales del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

– Una persona Representante de la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación , designada por la o el Decano de la misma.

– Una persona Representante de la Facultad de Económicas, designada por la o el Decano de la misma.

– Una persona Representante del Instituto de Sociología Jurídica de Oñate.

– Una persona Representante de las y los Jueces de Paz a designar por la Asociación de Jueces de Paz del País Vasco.

– Una persona Representante Sindical, a designar consensuadamente entre los sindicatos operantes en la Administración de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco, o en su defecto por el sindicato mayoritario en la citada Administración.

– Kontsumitzaileen elkarteetako ordezkari bat, Euskadin ordezkaritza handiena duten kontsumitzaileen elkarteek proposatuta.

3.2.– Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzako teknikari batek jardungo du idazkari; hitzerako eskubidea edukiko du, baina bozkatzekoa ez.

3.3. – Azterguneko kideak ordezkatzeko araua hau izango da:

– Kargua dela-eta izendatu diren kideak, berezkoak: kide izateko bide ematen dioten egitekoetan edo karguetan izendatzen direnak izango dira ordezko, eta horiek ezean, titularrek eskuordetzen dituztenak.

– Berezkoak ez diren kideak: ordezkatzen dituzten entitateetako organo eskudunek izendatzen dituztenak izango dira ordezko; azterguneko idazkariaren aurrean egiaztatu beharko dituzte ordezkoak.

3.4. - Aztergunеak, landu behar dituen gaien arabera, parte hartzeko gonbitea egingo die egokitzat jotzen dituen adituei.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko uztailaren 8an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

– Una persona Representante de las Asociaciones de Consumidores y Consumidoras a propuesta de aquellas más representativas de Euskadi.

3.2. - Actuará como Secretario un Técnico o una Técnica de la Dirección de Relaciones con la Administración de Justicia, con voz y sin voto.

3.3. –El régimen de suplencias de las y los miembros del Observatorio será el siguiente:

– Para las y los miembros que son designados por razón del cargo o natos, según el que tengan establecido en el cargo o función que origina su carácter de miembro, y en su defecto en la persona en quien delegue.

–Respecto del resto de las y los miembros no natos, por las personas que designen los órganos competentes de los entes a los que representan, acreditándolo ante el Secretario o Secretaria del Observatorio.

3.4. - El Observatorio invitará a participar a aquellas personas expertas que, en función de los temas a tratar, considere oportuna su colaboración.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de julio de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.